

Hamazazpi

2020ko ekaina



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala





Biltoki jatetxea.

Bengolarra taberna.

04



06



07

08



10



12

14

Hemen eta orain

- 04** Udal laguntzak eta 'Zigoitiko Merkataritza Bonua', ekonomia suspertzeko
- 06** Udal bulegoen berrantolaketa
- 07** Gorbeia Eskolako patio estali berria eta bloga
- 08** Nekazal-konpostajea: Arabako proiektu pilotu bat Zigoitian
- 10** Elkarrizketa: Iñigo Gracianteparaluceta, Zaitegi Gaztandegia
- 12** Keturako bunkerrak: esanahia eta ondarearen berreskuratzea

Kolaborazioak

- 14** Liburutegitik, maitasunez. **Javier Arbulurekin**

Staff

HAMAZAZPI

Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2020ko ekaina.

Azala: Gorbeia Eskolako 'Museoa'. Informazio gehiago 7. orrialdean

Editatzailea: Zigoitiko Udala_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 01138 ONDATEGI (ARABA) · T_ 945 46 40 41 · www.zigoitia.eus · zigoitia@zigoitia.eus

Koordinazioa eta erredakzioa:

Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@gmail.com

Diseinua eta maketazioa: www.hirudesign.com

Imprimaketa: www.graficasirudi.es

Ale kopurua: 1.050 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08

Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu:

www.facebook.com/hamazazpialdizkaria 

2020ko Zergadunen Egutegia

Zergak ordaintzeko epeak malgutu ditu udalak

COVID-19 izurritearen aurrean, eta herritarrak jasaten ari diren zailtasunak arintze aldera, Zigoitiko Udalak malgutu egin ditu udal zergak eta tasak ordaintzekoaldiak, eta honela geratu dira:

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN ZERGA

Borondatezko epea:
2020-03-01 _ 2020-06-01

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Maiatzaren hasieran

ABELTZAINZA-KANONA

Borondatezko epea:
2020-08-01 _ 2020-11-30

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Azaroaren hasieran

ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GESTIOAK

Udaletxea. Telefonoa: 945 46 40 41. Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara. Faxa: 945 46 40 52, e-mail: zigoitia@zigoitia.eus

Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak

Ordaintzeko lekuak:

- Kutxabankaren eta Laboral Kutxaren bulegoetan, likidazioa aurkeztuz.

- Internet bidez, web orri honetan: www.zigoitia.eus (Nire ordainketa)

- Banku-txartelaren bidez, udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak:

Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du ordainketa, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

Aholkuak

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalarri jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Betearazpen epea

Araututako epea bukatu eta hurrengo egunean hasten da eta betearazte-errekarguak, premiamenduzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu behar dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

HIRI ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA ETA EZAUGARRI BEREZIKO ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA

Borondatezko epea:
2020-08-01 _ 2020-09-30
2020-10-01 _ 2020-11-30

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Lehenengo epea (kuotaren %50a) – Irailaren hasieran
Bigarren epea (kuotaren %50a) – Azaroaren hasieran

LANDAK

Borondatezko epea:
2020-08-01 _ 2020-11-30

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Azaroaren hasieran

JARDUERA EKONOMIKOEN ZERGA

Borondatezko epea:
2020-11-01 _ 2020-12-31

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Abenduaren hasieran

LANDA HIGIEZINEN ZERGA

Borondatezko epea:
2020-08-01 _ 2020-11-30

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Azaroaren hasieran

ZABOR-BILKETAREN TASA

Borondatezko epea:
2020-08-01 _ 2020-11-30

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Azaroaren hasieran

IGERILEKUAK

Borondatezko epea:
2020-07-01 _ 2020-08-31

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:

Igerilekuko zerbitzua irekiz gero kobratuko da tasa. Errola fiskalean sartzen dira aurreko urteetako ordainketak, baldin eta interesdunak baimena eman badu hurrengo urteetarako- uztailearen bukaerarako automatikoki berritzeko.

Urteko abonamendu berrietarako, eskabide-orriarekin batera, tasaren autolikidazioa eta ordainagiria aurkeztu behar dira.

Udal laguntzak eta 'Zigoitiko Merkataritza Bona', jarduera ekonomiko suspertzeko

COVID 19 izurriteak eragindako krisiaren aurrean, Zigoitiko Udalak enpresa txikiei eta autonomoentzako diru-laguntzen programa bat jarri du martxan, eta baita bonu-sorta bat ere, tokiko merkataritza biziberritzeko

(establezimenduen jabetzako argazkiak)



Taberna Errekatxo.



Guikuri Moda.

COVID 19ak ekarritako osasun-larrialdiko krisiaren ondorioz mikroenpresek eta autonomoek jasandako eragina arintzeko helburua duten laguntzak

Duela 3 hilabetetik hona Koronabirus izurritearen ondorioz ezarritako Alarma Egoerak eragin handia izan du ekonomian; bai eskarian, baita ondasun eta zerbitzuen eskaintzan ere. Enpresa eta profesional autonomoek aurre egin behar dioten arazo larrienetako bat likidezia falta da, diru-sarrerak murriztu direlako. Horrek larriki eragiten dio bere epe labur eta ertaineko egoera ekonomikoari, baina etorkizunera begira, euren biziraupena ere arriskuan jar lezake. Horregatik guztiagatik, Zigoitiko Udalak laguntza-programa bat onartu du gure udalerrian egoitza, sukurtsala edo lantokia duten enpresa txikientzat eta autonomoentzat. Alarma Egoerak ezarritako murrizketengatik eta ondorengo luzapenengatik jarduera eten edo establezimendua itxi behar izan duten enpresa eta pertsona autonomoen egiturazko gastuei aurre egiteko diru-laguntzak dira.

3 laguntza-lerro ezarri dira:

- **Interesik gabeko mailegua**, bost urteko epean udalari itzuli beharko zaiona, hileko kopuru bat ordainduta (lehen kuota 2021eko urtarrilean ordainduko da). Laguntza ez da 8.000 eurotik gorakoa izango pertsona autonomoen kasuan, eta 15.000 eurotik gorakoa enpresa txikien kasuan.
- **Itzuli beharrik gabeko laguntza**, aurrez aurreko jarduera edo jendearentzako irekitako jarduera etetearen ondoriozko eragin ekonomiko arintzeko. Muga hauekin: banakako enpresaburu autonomia eta langile bakarra duten enpresak: 1.000 €; enpresaburu autonomia eta 2 eta 5 langile bitarteko enpresak: 1.500 €; enpresaburu autonomia eta 6 eta 9 langile bitarteko enpresak: 2.000 €.
- 2020ko urteari dagokion **zabor-tasaren diru-laguntza**.

Programa honetarako aurrekontua, guztira, 175.000 €-koa da. Eta eskaerak iristen diren ordenaren arabera ari dira ebazten. Eskabideak aurkezteko epea 2020ko maiatzaren 25ean hasi zen eta azaroaren 2an amaituko da. Deialdi

hau arautzen duten oinarriak eta eskatzeko inprimakiak aurki ditzakezu hurrengo estekan: <https://www.zigoitia.eus/eu/udal-zerbitzuak/dirulaguntzak1/2020>

Merkataritzako bonuak

Halaber, egoera honetan Udalak abian jarritako beste ekimen bat 'Zigoitiko Merkataritza Bona' kanpaina dugu. Ekonomia suspertzeko programa bat da eta kupoi batzuen bidez merkataritzari, ostalaritzari eta zerbitzuei laguntzea du helburu. Kupoi horiek, batetik, enpresei likidezia izateko aukera ematen diete erosten diren unetik bertatik, eta, bestetik, bezeroak beren konfiantzako establezimenduan erostera animatzen dituzte, hobari batekin. Kanpainarekin bat egin dute gure udalerriko 9 enpresa eta dendek. Horietan guztietan bi bonu-mota erabili ahal izango dira: "10 euroko bonua", 7 euroko erosketakostua duena; eta "30 euroko bonua", 20 euroko kostua duena. Bonuaren balioaren eta bezeroak ordaintzen duenaren arteko aldea Zigoitiko Udalak ordaintzen du, erosketak sustatzeko programa hori 10.800 € bideratuta. Pertsona bakoitzak saltoki bakoitzerako 2 bonu erosi ditzake gehienez, eta salmenta-puntuari bertan trukatu, irekitzen duenean, egin ez badu jada. Bonuak establezimenduetan bertan erosten dira, eta 2020ko urriaren 31ra arteko balioa dute.

Informazio gehiago: <https://www.zigoitia.eus/eu/udal-zerbitzuak/dirulaguntzak1/2020>

'Zigoitiko Merkataritza Bona' erabili ahal izango duzu hurrengo enpresa hauetan:

- Bengolarra taberna
- Errekatxo taberna
- Artzegi taberna-jatetxea
- Biltoki jatetxea
- Guikuri Moda
- Guikuri Landetxea
- Quopiki Landetxea
- Ziar Apaindegia
- Zainduz Fisioterapia



Artzegi taberna-jatetxeko pintxoak.



Ziar Apaindegia.



Zainduz Fisioterapia.



Quopiki Landetxea.

Udal bulegoen berrantolaketa

Segurtasun-neurriak hartu dira herritarren, udal-langileen eta talde politikoen osasuna zaintzeko



COVID19aren epidemiak gure ohiturak eta ia bizitzako esparru guztietan ditugun harremanak aldatzera behartu gaitu. Baita administrazio publikoekin erlazionatzeko orduan ere. Zigoitiko Udalaren kasuan, ez dio zerbitzua emateari utzi, baina zenbait astez harremanak telefonoz bakarrik egin ahal izan dira (T_945 46 40 41) eta Internet bidez (kontsultak zigoitia@zigoitia.eus helbide elektronikoaren bidez, eta izapideak, hala nola zergen ordainketa, www.zigoitia.eus udalaren webgunearen bidez). Bide horiek funtzionatzen jarraitzen dute, eta, hain zuzen, horiek erabiltzea gomendatzen da, arriskuak gutxitzeko eta beharrezkoak ez diren joan-etorriak saihesteko. Udal bulegoetara joan beharra dagoen kasuetan, maiatzaren 26tik aurrez aurreko arreta zerbitzua berreskuratu da. Gainera, udal-teknikarien aholkularitza behar duten gaietarako, aldeztu aurretik hitzordua eskatzea gomendatzen da, 945 46 40 41 telefono-zenbakira deituta. Aldi berean, hainbat neurri hartu dira pertsonen arteko distantzia eta segurtasun-arauak betetzen direla bermatzeko, betiere herritarren, udal-langileen (dagoeneko, udaletxeko lanpostuetara bueltatu dira denak) eta talde politikoen osasuna zaintzeko.

Sartzeko ibilbidea

Udaletxeko eraikinera sartzeko bi ate daude, baina Gizarte eta Kultura Etxera begira dagoena itxi egin da. Beraz, aparkalekura ematen duen atetik sartu beharra dago. Sartu bezain laster, itxarongela dago. Bertan, aulkia kenduta daude,

eta bi eserleku bakarrik utzi dira, elkarrengandik 2 metrora. Horrela, gela garbiago bat geratu da, eta bertan, aldi berean 2 pertsona bakarrik egon daitezke. Gehiago baleude, kanpoan itxaron beharko lukete.

Gel hidroalkoholikoa

Gel desinfektatzailearen banagailu batzuk jarri dira. Udaletxera sartu aurretik, derrigorrezkoa da erabiltzea.

Maskaren derrigorrezko erabilera

Erakunde eskudunak aginduari eusten dion bitartean, maskarak nahitaez erabili beharko dira espazio itxietan eta kanpoaldean, 2 metroko segurtasun-distantzia bermatu ezin denean.

Dokumentazioa jasotzeko gunea

Jendea arreta emateko eremuan, Erregistro Orokorra dagoen lekuan, manpara bat jarri da dokumentazioa jaso eta entregatzeko mahaiaren gainean.

Teknikarien arreta

Teknikarien arreta jaso behar duten kasuetarako, beheko solairuan gela txiki bat prestatu da bilerak egin ahal izateko, mahai bat eta manpara batekin. Hitzordua hartu ondoren, bertan erantzun zuzen hirigintza-arloarekin, Ur Partzuergoarekin eta idazkaritzarekin lotutako kontsultei.

+ info: **T_945 46 40 41** · zigoitia@zigoitia.eus

Gorbeia Eskolako patio estali berria

Eta itxialdi garaian oso tresna erabilgarria: ikastetxeko bloga



Gorbeia Eskolak badauka patio estali bat. Errepide aldera ematen duen ikastetxeko sarrera teilatu batekin babestu da, ikasleek, euria edo eguraldi txarra egiten duenean, autobusari itxaron ahal diezaioten. Proiektua Zigoitiko Udalak finantzatu du 23.540'01 €ko partida bat bideratuz. Eta LEADER programako 12.600 €ko diru laguntza lortu da.

Bide batez, COVID 19ak sortutako krisi honetan ikastetxeko hezkuntza-komunitateak lanean jarraitu du, noski. Ez da erraza izan, baina irakaskuntza-jarduera aurrera eraman eta familiarekiko komunikazioa mantendu ahal izan dira, irakasleen eta ikasleen ahaleginari esker, eta familien laguntzarekin. Erronka horretan, besteak beste, eskolako bloga oso tresna baliagarria izan da. Telefonoa eta e-posta erabiltzeaz gain, <http://gorbeiaeskola.blogspot.com/> bloga aprobetxatu du ikastetxeak umeekin eta gurasoekin komunikatzeko. Eta euren proiektuak zabaltzeko. Esate baterako, 'Liburutegia' atalaren bidez: irakurleen topaleku bat non, idatzizko hitzen, argazkien eta bideoen bidez, era guztietako ekarpenak biltzen diren; hala nola ipuinak, ipuin-kontalariak, poesiak, lehiaketak, umeei sortutako zozketak eta guzti! Azpimarratzeko ikasleen lanak eta orain etxetik egindako 'Irratsaioa'. Eta baita aldizkari honen azalean ikusi dituzuen argazki bitxiak ere; 'Gorbeia Eskolako Museo' ataletik *maileguan* hartu ditugunak, hain zuzen

ere. Itxialdi garaian Holandan jaiotako eta mundu mailan ezaguna egin den ekimenari jarraituz, koadro ospetsuak erreproduzitzeko erronka planteatu du eskolako museoak. Eta baita lortu ere! "Gure areto ezberdinak bisitatzeko baduzue, gure artelan bilduma zoragarriarekin gozatuko duzue. Proposatzen ditugun istorioak garai bateko iragana eta ez hain iragana kontatzen diguten margolanetan gauzatzen dira, baina orainaldian eta orainaldikoak ere badira", azaltzen du museoak blogean. Emaizta zoragarria da, benetan. Arrazoiak? Hona hemen: "Gure bilduma maitasun handiz eta bihotz-bihotzetik egin dago, beraz, zuen gustukoa izatea eta bisitaldiarekin gozatzea espero dugu". Artelan guztiak ikusteko, jarraitu hurrengo esteka: <http://gorbeiaeskola.blogspot.com/2020/04/gorbeia-eskolako-museoa.html>

Matrikulazio berriak

Uztailean eta irailaren hasieran matrikulatzeko epea indarrean egongo da. Eskolak Gorbeia Eskolan bertan aurkeztu ahal dira eta baita Hezkuntza Sailean ere, Gasteizko San Prudentzio kalean. Eraman behar diren dokumentuak honako hauek dira: errolda, familia liburua eta NANaren fotokopia.

Nekazal-konpostajea

Arabako proiektu pilotu bat, Zaitegin

Arabako Foru Aldundiak jarri du ekimena martxan, Abere kooperatibaren laguntza teknikoarekin eta Zigoitiko Udalarekin, Gorbeia Eskolarekin eta Zaitegi Gaztandegiarekin lankidetzan. Gorbeialdeaz gain, esperientzia beste ustiategi batean ere ari dira garatzen: Done Bikendi Aranan, Kanpezu-Arabako Mendialdea Kuadrillan, hain zuzen ere



Argazkiak: **Abere kooperatiba***

Europa mailako araudi batek behartuko du, 2024ko urtarrilean, etxean sortzen dugun zabor organikoa berezita jasotzera, ondoren birziklatu ahal izateko. Austrian landa-inguruneari zuzenean eragiten dion 'irtenbidea' asmatu dute; Alpeetako herrialdeko zabor organikoaren erdia nekazal-konpostajearen bidez kudeatzen dute: nekazarietako eta komunitate-guneetako (eskolak, ospitaleak, eguneko zentroak...) hondakin organikoak jaso eta konpostatzen dituzte; tona bakoitzeko 50 € kobratzen dituzte, bataz beste; eta urtean 1.000 tona inguru jasotzen dituzte. Nekazal-konpostajea da, beraz, alternatiba iraunkorra gure zaborraren zati handi bat kudeatzeko eta lehen sektoreko jardueren osagarri bat izan daiteke. Gainera, ekonomia zirkularren adibide ezin hobea

da: sinergiak aprobetxatuz, nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren hondakinak eta gure etxeetako hondakin organikoak ongarri bihurtzeko aukera ematen du; ongarri hori, aldi berean, nekazaritzako ustiategietako laborantza-lursailletara itzuliko da.

Gure lurraldean, Arabako Aldundiko Ingurumen Sailak Zaitegi eta Done Bikendi Arana aukeratu ditu proiektu baten barruan esperientzia pilotu bana garatzeko, eta Abere kooperatiba kontratatu du aholkularitza teknikoa emateko. Gure udalerrian, zehazki, Iñigo Gracianteparaluceta ari da proiektuan lanean, duela gutxi martxan jarritako ahuntz ustiapen ekologikoan (HAMAZAZPIko ale honetan, 10. orrialdean, Iñigori egindako elkarrizketa irakur dezakezu).



Abere kooperatibako teknikariek parte-hartzaileei prestakuntza ematen diete eta prozesu osoa gidatzen dute.



Iraulketara pila. Materiala pilatzen, nahastzen eta aldizka iraultzen duen sistema.

Kalitateko ongarri organikoa

Zigoitiko proiektu pilotua otsailaren erdialdean hasi zen eta garapen fasean dago: duela zenbait hilabetetik hona, Gorbeia Eskolako jangelan sortutako hondakin organikoak (fruta eta barazki hondarrak, ogia, janari soberakinak eta abar) aukeratu eta horretarako prestatutako edukiontzietan uzten dira. Ondoren, Zaitegiko baserrira eramaten dira, eta bertan, abeltzaintzako ustiategiak berak sortutako hondakinekin batera tratatzen dira (simaurra, funtsean).

Gainera, udalak udal-lursail batean konpostaje-proiektuak hornitzeko duen material egiturazalea (gainerako inausketa birrindua) gehitzen da. Hondakin organiko horiek guztiak konpostatu egiten dira kalitatezko ongarri bat lortzeko, nekazaritzako lurra ongarritzeko erabiliko dena.

Prozesu osoa Abere kooperatibaren jarraipen eta laguntza teknikoarekin egiten da, datu errealak lortu eta erregistratzeko helburuarekin, ondoren, emaitzak aztertu eta proiektuaren bideragarritasuna ebaluatu ahal izateko.

Azken fase hori, ziurrenik, datorren urtearen hasieran iritsiko da. Gainera, esperientzia Nekazaritzako Konpostajerako Jardunbide Egokien Kodean erregistratuta geratuko da, eta Arabako landa-inguruneke beste eremu batzuetan ere erabili ahal izango da.

(*: **Abere** kooperatibak nekazaritza-elikagaien eta abeltzaintzaren sektorerako zerbitzu teknikoak, ekonomikoak eta sanitarioak eskaintzen ditu. **Abeltzain** eta **Sergal** kooperatiba zaharretatik dator, eta bere egoitza Arkauten dago).



Ben Kerckx eta **Antun Karlovic**en irudiak, **Pixabay**.

'Austriako eredu' eta Larrabetzuko esperientzia

Arabako Foru Aldundiak bultzatutako 'Arabako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren' barruan (2017-2030) sortu da Zigoitiko proiektu pilotua. Nekazal-konpostaje teknika du oinarri: aspalditik hainbat herrialdetan -Austrian, Frantzia, Alemanian, Belgikan... - garatutakoa eta emaitzak onak lortu dituen, kostua, ingurumen-onurak, eta nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien errenta-dibertsifikazioa eta hobekuntza kontuan hartuta.

Euskal Herrian nabarmentzekoa da Larrabetzuko (Bizkaia) esperientzia. 2014an hasi zen, eta gaur egun 150etik gora familiak, jatetxe batek eta tokiko 4 nekazari hartzen dute parte.

Iñigo Gracianteparaluceta Lopez de Ipiña, *Zaitegi Gaztandegia*

"Abeltzaintza eta nekazaritza ezinbestekoak dira, krisi honetan ikusi dugun moduan"



Aita Zaitegikoa du. Ama, Manurgakoa. Lehenengo herrian ahuntz etxaldea dauka; bigarrenean, etxebizitza. Batetik bestera 5 kilometro daude, asko jota. Distantzia txikia ematen du. Batez ere Gasteizera, Berlinera eta Bilbora ikastera eta lan egitera joateko aukera izan duen mutil batentzako. Baina ez pentsa! Zaitegitik Manurgarako tarte horretan unibertso bat dago; mundu oso bat, ezagutza eta diziplina ezberdinez osatutakoa. Besteak beste, nekazaritza, abeltzaintza, albaitaritza, gaztagintza, salmenta, gestoria, finantzak, sorkuntza... Eta guztiaren gaitetik gailentzen den filosofia: naturarekiko eta animaliekiko maitasuna. "Goxotasun eta ardura guztia ipintzen dugu etxeko txikienak zaintzeko lanetan. Ongi etorri!" dio Iñigok bere sare sozialetan, alboko argazkiaren gainean. Eta hori da, hain justu, Zaitegiko etxaldean ikusi duguna. Goxotasuna eta ardura.

- Hona heldu arte, nolakoa izan da zure ibilbidea?

Txikitik Gasteizen bizi nintzen. Gero, Donostian, Filosofia ikastera joan nintzen. Bi urte egin eta karrera aldatu nuen, Bilbora, Arte Ederrak estudiantzera. Bertatik Alemaniara; hiru urte eman nituen Berlinen, Erasmus programarekin hasieran eta praktiketan GlogauAIR erresidentzian gero. Bueltan, Kultur kudeaketan eta Pedagogian espezializatuta, Bilbora berriro, argazkilaritza klaseak ematera. Aldi berean hasi nintzen hiri-baratzen bidez garapen sozialeko proiektuei begira; oso eredu interesgarriak ziren, baina zaila zen proiektu propioa garatzea. Eta konturatu nintzen Zigoitian bertan hori guztia nuela.

- Landagunean eta lehenengo sektorean.

Bai. Bilbotik itzuli eta Arkauteko Nekazal

Eskolan sartu nintzen. Bertan nire proiektua eta nire burua eraikitzen joan nintzen. Irakasle batek Etxanora eraman ninduen, Kepa Agirregoikoaren etxaldea ezagutzera. Hantxe erabaki nuen ahuntz ustiapen bat garatuko nuela, gazta ekoizteko

- Ustiapen ekologikoaren alde egin duzu apostua.

Hasieratik argi izan nuen hori. Animalien eta lurraren gaitasunak aprobeitzatzeko, bere erritmoak errespetatu behar dituzu. Eta maitasunarekin tratatu. Ikuiluan behar dudana jana ekoizteko jabetza izatea luxu handia iruditzen zait. Eredutzat hartzen dut lehengo baserrietan gauzak egiten ziren modua: guztia aprobeitzatu, ahal diren gauza gutxien erosi, hondakinak birerabili... 'Ekonomia zirkularra' deitzen diote orain.

- Bide batez, zergatik ahuntzak?

Lehen sektorearen profesionalizazio katean, nonbait, ahuntzak galdu egin ziren. Sasi artean ibiltzeko geratu ziren, mendia garbitzeko, inolako hobekuntzarik eta kontsideraziorik gabe. Hori guztia aldatzen ari da. Esate baterako, Euskadiko Ahuntz Esne Elkarteak sortu dugu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 12 artzain, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Ahuntzek produkzio potentzial handia dute; litroen aldetik, kanpaina luzeagoa, ardi latxarekin konparatuta. Eta oso maneju ezberdinetara egoki daitezke.

- Etxekoak abeltzainak dira?

Ez. Gurasoek hirian dute ogibidea. Baina aiton-amonek baserriko animaliak zituzten eta nekazariak ziren. Landa batzuk beraienak ziren. Lurralde-oinarri bat izatea oso lagungarria izan da niretzat.

- Zein da zure lanaren gauzarik pozgarriena?

Sormen-kontua. Hau da, egun osoan, funtzio anitzeko lana. Ustiapen honetan ez da soilik egiten ganaduaren zainketa, erditzea, gaztagintza, laborantza... Biologia, albaitaritza, finantzak ere jokoan sartzen dira. Kanpotik agian ez da ulertzen. Lanbide hau duindu behar da. Niri bota didate: "hainbeste ikasketarekin, bidaiatu duzunarekin eta ahuntzak jarri?". Maila falta ikaragarria adierazten du horrek. Nire ustez, alderantzizkoa da. Naturarekin kontaktuan egotea zoragarria da; pribilegio bat. Une batzuetan gogorra da, egia. Baina abeltzaintza eta nekazaritza ezinbestekoak dira biztanleen biziraupenerako. Azken krisi honetan ikusi den moduan.

- Aisialdian, zer duzu gustuko?

Mendiarekin lotuta dauden aktibitate guztiak: ehiza, xendazaletasuna... adibidez Egiollarrara lo egitera joatea: arratsaldez igo, aterpean lo egin eta esnatzerakoan, urtegiaren gainean hodeien itsasoa ikustea. Ez dauka preziorik. Izan ere, nahiz eta denbora gutxi izan, Oketa Zigoitia Herri Kirol taldean sartuta nago. Arabako selekzioarekin bigarrenak geratu ginen iaz 'saku eruten' Zazpi Herrialdeko Txapelketan! Eta Manurgako lehengusu batekin erleteri batean ari gara Gorbeian, ezta ekoizten duela 3 urtetik hona.



Gazta freskoa, ahuntz erruloa, Karst eta Floren

Bere lehenengo ekoizpena laster salgai jarriko du Iñigok. 4 barietate Zaitegi Gaztandegia markarekin: gazta freskoa, Aiurdin izeneko ahuntz erruloa, Karst laktikoa eta Floren. Azken hau pastaren elaborazio prentsatu bat da, lore azal jangarri batekin, eta amamari egindako omenaldia. Karst esne pasteurizatua duen gazta da, piramide-formakoa eta errauts-azalduna. Izenak Gorbeia mendiguneko kareharrizko paisaia bereizgarriari egiten dio erreferentzia. Salmenta zuzenaren bidez merkaturatzen ditu, etxaldean bertan eta inguruko horrenbeste dendetan.

Zaitegi Gaztandegia

Etxaldea eta denda

01138 Zaitegi

T_ 686 921 410

www.facebook.com/zaitegi.gaztandegia

www.instagram.com/zaitegi_la_queseria/



Keturako bunkerrak: esanahia eta ondarearen berreskuratzea

Abadelauetak Errepublikarren Frontetik antolatzen duen ibilbidearen zatia dira




Testua eta argazkiak: **Abadelaueta Etnografia Elkartea**.

Gerra Zibilean (1936-1939) borroka garrantzitsuak egon ziren Zigoitian: Oketa, Eribegana edo Saimendi mendiak eta Murua, Okoizta eta Zestafe herriak heriotza eta suntsipen gune bihurtu ziren gerraren logika gordinaren barruan. 1936ko abenduaren amaieran amaitu zen bataila Zigoitian, 4.000 baja eta 1.000 hildako baino gehiagoko balantzearekin. Kopuru horiei gehitu behar zaizkie lekualdatutako, erbesteratutako eta errepresaliatutako guztiak, bai gerran zehar, bai urte askotan iraun zuen gerraosteko prozesuan. Gertaera horiek eskualde osoa markatu zuten. Arrasto batzuk oraindik ere ezagunak dira: eliza suntsituak, bala zuloak kanpaitan, artilleria eta abiazio-bonbardaketek eragindako kraterrak, bunkerrak, parapetoak, lubakiak... Azken urteotan, Aranzadi Zientzia Elkartek hobi komunitate hasitako deshobiratze-lanak biktima horiek bilatzen, identifikatzen eta duintzen lagundu nahi du. Izan ere, bakearen eta

giza eskubideen aldeko azterlanei dagokienez, oraindik lan handia dago egiteko.

Metrailadore-habiak

'Villarrealako Bataila' krudelaren ondoren, ordura arte modu prekarioan eraikiak izan ziren gerra-posizioak sendotu egin ziren eta, lubakien eta elorri-hesien ondoan, hormigoizko gotorlekuak eraiki ziren. Keturako bi metrailadore-habiak horien adibide onak dira. Gotorleku hauek errepublikarren lehen lerroan kokatuta zeuden, eta 1937ko martxoaren 10ean amaitu zituzten eraikitzen. Datazioaren zehaztasun hori gotorlekuetan bertan dago jasota. Izan ere, fuerte horiek eraiki eta defendatu zituztenek hemen jarraitzen dute... Edo, behintzat, badugu beren lekukotza. 2017an, Josu Santamarina Otaolak, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) talde bateko buruak, Azterketa arkeologikoa egin zuen gotorlekuetan. 40ko eta 50eko hamarkadetan,



handik gertu, Urrunagako urtegia eraikitzeko lanen ondorioz ingurua aldatu zen arren, oraindik ere, hormigoizko freskoan egindako dozenaka grafiti aurki ditzakegu gotorleku horietan, defendatzen zituztenek idatzitakoak. Historiaurreko petroglifoek azterketan erabilitako metodologia berari jarraituz aztertu ziren. Argiztapen artifizialean eta 3Dko modelatze fotogrametrikoan egindako aurrerapenei esker, hogeita hamar inskripzio baino gehiago berreskuratu ahal izan dira. Horrela, badakigu gotorleku horiek 'Batallón Madrid' delakoak, Eusko Gudarosteko Langileen Batasun Orokorreko (Langileen Batasun Orokorra) 5. Batailoia defendatu zituela. Bere ideologia ezkertiarra ezabaezin geratu da igitaia eta mailua bezalako sinboloei esker, baita "gora Armada Gorria" dioen idazkun bati esker ere. Gainera, grafitien azterketak aukera ematen digu pertsonak zifra estatistiko bihurtu zituen "gerra totalari" izen-abizenak jartzeko. Horri esker, badakigu hemen 4. Konpainiako kideak ere borrokatu zirela. Gehienak Ezkerraldeko zetozen, eta euskal langile mugimenduak faxismoaren aurka hasitako borrokaren testigantza dira.

Ikerketa bateratua

2017az geroztik, Abadelaueta Etnografia Elkartek, Zigoitiko Udalak eta Josu Santamarina Otaola EHUko Ondare Eraikiaren Ikerketa Taldeko (GPAC) ikertzaile arkeologoak elkarrekin dihardute lanean espazio horiek modu kritikoan ulertzeko, ikertzeko eta ikusarazteko, kultura-eta ondare-eskaintza baten parte izateko helburuarekin. Hain zuzen ere, Abadelauetak Zigoitiko Udalaren babes ekonomikoarekin urtero argitaratzen duen Akelarrea aldizkariaren

hurrengo alea gure lurraldeko memoria historikoari buruzkoa izango da oso-osorik. Keturako Memoriaren Ibilbidea Zigoitiko udalerriko kontzientziazio demokratikoko eta ondarea berreskuratzeko prozesu baten barruan dago. Abadelaueta, Zigoitiko Udala eta Ondare Eraikia Ikertzeko Taldea bat datoz Errepublikarren defentsa-lerro zaharrak zeharkatzen dituen Keturako Ibilbideari balioa emateko beharrezkin. Eta baita Abadelaueta Elkarte Etnografikoak garatzen dituen ekintza kolektiboen arteko fronte matxinatuaren beste ibilbide baten ikusgarritasun kritikoa egiteko premiarekin ere.

Ibilbide gidatuak

Elkarte honek urteak daramatza udalerrian zehar txangoak antolatzen, hilerro, hainbat motatako balioak eta ondare-mugarriak ezagutzeko eta zabaltzeko: zuhaitz bereziak, harrobi zaharrak, bide zaharrak, iturriak, etabar. 2017az geroztik, urteko programaren barruan, bi ibilbide aurkezten dira, arrakasta handiz: Fronte Errepublikarren ibilbidea, hemen aipatutakoa, Keturako Ibilbidea, eta Murua, Zestafe eta Nafarrate herriak zeharkatzen dituen Fronte Frankistaren ibilbidea. Duela gutxi, ondarea egokitzeko lanak egin dira Keturako espazio arkeologikoan. Obrak egin dira sarbidean eta irteeran, saneamenduan eta drainatzean, eta babes-hesian, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroak 2017az geroztik ofizialki arkeologia-aztarnategi gisa kalifikatutako kokagune horretan. Eskuhartze integrala egin da ikerketaren arloan, Memoriaren Ibilbide honen abiapuntu bihurtuz. Zigoitiko Udalak lanak finantzatu ditu.



'Hitzordua liburutegiarekin' programako diseinuak.

Hitzordua liburutegiarekin eta Bibliotok programa berriak martxan!

Testua eta argazki hautaketa: **Javier Arbulu**

Liburutegiek beharrezko funtzio bat betetzen dute: pertsonen informazioa eta prestakuntza doan eskuratzeko eskubidea eskaintzea, eta, zergatik ez esan, irakurketan galtzekoa. Azken hori ez dakit "carta magna" batean jasotako eskubide bat den. Zalantza handia daukat: plazerak beti legetik kanpora dirudi. Horrekin ez dut esan nahi nahitaz jurisdikzioa bat urratu behar denik, plazera bera gertatzeko. Are gehiago, batzuetan iruditzen zait dekretuek ez dutela jasotzen eta ez dutela babesten, kanpoan geratzen dela, linbo moduko batean bezala, eta xedapenen bat bortxatzen duen neurrian baino ez dela legalki kontsideratzen; izan ere, galtzeko zorion horrek (edozein formatan) garrantzi gutxi zerbait izan behar du, nahiko alferrekoa, eta, beraz, aintzat ez hartzeko modukoa. Agian horrexegatik etorri naiz hori aldarrikatu nahian. Batzuetan, erabili ezin diren gozamenak behar-beharrezkoak dira. Barkatu, ez egin kasu handirik. Esan nahi dizuet gauza horiek kontuan hartuta bi

programa martxan jartzea erabaki dugula: *Hitzordua liburutegiarekin eta Bibliotok*. Ez dira behin betiko programak, eta programa itxiak ere ez. Hurrengo ikasturtea hasi arte geratzen zaizkigun bi hilabeteetan probatuko ditugu, besterik gabe, mende itxura izan duten hilabete hauetan galdutakoaren zati bat laster berreskuratuko dugulako itxaropenarekin. Soberan dago esatea ni zorionekoetako bat naizela. Ez nuen inor galdu inguruan. Lanean jarraitu ahal izan nuen, lehenengo etxetik, gero Kultur Zentroan bertan, baina liburutegian egiten dugunak ez du zentzu handirik inorekin partekatu gabe. Eta, batez ere, zuentzat "hau" guztia nolakoa izan den eta nolakoa den jakiteko gogoia dugu. Ziuraski, ez du ezer eraginkorrerako balioko; 'Zorra' eta 'Hartzekoa' lerro zorrotzak balioesten dituen zerbait, eta gero estatistiketan islatuko dena; baina pelikularen garai honetan zertarako engainatu: denok dakigu liburuak beste jarduera batzuetarako estalki bat direla eta plazeraren (irakurketaren) bideak susmaezinak ere badirela.

Protokoloen denbora

Protokolo garaia ere izan da. Azken aste hauetan, hainbesterekin, begiak erre ditugu; Eta, uste dut, nengoen baina *protokolarioago* bihurtu naizela. Protokoloak garrantzitsuak eta erabilgarriak dira; agian arrazoi horregatik beragatik aspergarriak. Deabruak hartuta bezala, protokoloak irakurri eta eztabaidatu genituen, eta horietako batean irakurleak beren liburutegietara maileguak gordetzeko poltsa batekin joatea eskatzen zenez, erabaki genuen polita izango zela, protokoloaren kiribila gehiago kiribiltzeko, lana aurreztu eta bat oparitzea.

Poltsa horiek guk geuk diseinatu ditugu. Zoro saiatu batzuk elkartzen ziren Kultur Etxean, galdutako denboraren zati bat zuei nola itzuli pentsatzera. Izorrotuta zeuden, hori ezinezkoa zela ulertzen zutelako. Beraz, marratzen hasi ziren. Ez da beharrezkoa esatea marratzen ez zekitela. Baina hor ari ziren pentsatzen zer izango ote zen marratzen jakitea, eta, aldi berean, haurren teknika hutsezinari jarraitzen zioten: "Pintatu laua eta seia, eta lortu zure aurpegia".

Seiak eta lauak

Horrela, papertxoaren gainean irakurle multzo bat sortu zen, zerbaitetan kontzentratuta. Batzuek adi-adi irakurtzen dute, beste batzuek begiak altxatzen dituzte orrialdeetatik. Hala da,

'Deszifratze tipografiko' hutsa gelditu eta ideia bat bilatzen dugun une horiek prozesu osoko garrantzitsuenak direlako ziurrenik. Agian benetako irakurketa-unea 'bahiketarekin' betetzen da. Zer gertatzen da orduan? Noraino joaten gara?

Behin eta berriz errepikatzen da 'bidaiatu' egiten dugula, irakurketak 'garraiatu' egiten gaituela, baina askotan ahaztu egiten zaigu bidaia hori zertan datzan adieraztea. Normala da, zaila da. Hala ere, ziur nago ez dela pertsonaiekin batera, paperera lotzen dizkieten abentura eta zorigaitzen bildumaren zehar, egiten dugun bidaia soilik. Beste zerbait ere egon behar du, maiz gertatzen baita iristen garen leku horiek, itxuraz, ez daukatela erlazio esturik kontaktzen denarekin, eta gordetzekotan, modu susmaezinean egiten dutela aitortu behar dugu.

Marratzen ditugun 'sei eta lau' horiek, norbanako isolatuak edo lagun ikusezinak dituztenak,

Bidea zabaltzen ari ziren, harritura, 'irakurlearen bahitura' une bete-betean. Gero pentsatu genuen ondo legokeela norbait ondoan jartzea, lagun bat. Horien artean liburuak, distantzian lotuz.

Oihalezko poltsak egin ditugu zuentzat. Irakurleak irudikatu nahi dituzten seiak eta lauak. Ezin dizuegu ezer garrantzitsurik itzuli, baina beraiekin itxarongo dizuegu liburutegian.

Jai eta kultura-ekitaldi nagusiak, bertan behera

Zuhurtzia eta erantzukizun sozialagatik, eta 'normaltasunera' lehenbailehen itzultzeko

Gaur egungo osasun-krisiaren ondorioz, Udalak bertan behera utzi ditu Zaldien Azoka, Festikale, Eguzki Jaia eta Zigoitia Euskaraz ekitaldiak. Oso erabaki zaila izan da, gure udalerrian garrantzia handia duten kultur ekintzak eta festak direlako, baina erabakia funtsezko 2 arrazoitan oinarritu da: batetik, ezin dira bermatu une honetan behar diren segurtasun eta higiene neurriak; beraz,

arduragabekeria litzateke jaietara eustea. Bestetik, jarduera horiek finantzatzeko aurrekontua, pandemiak eragindako krisiaren ondorioak arintzeko hainbat programatarara bideratu da. Era berean, jolas, kultura eta kirol-programazio alternatibo bat bultzatzea erabaki da. Kultura Kontseilua eta udalerriko elkarte-sarea hainbat ekimen diseinatzen ari dira, parte-hartzeko prozesu batean.

Autobusen ordutegiak

1 ZIGOITIA - VITORIA- GASTEIZ

ZESTAFE	ACOSTAOKUIZTA	GOROSTIZA (Zigoitia)	ETXABARRI IBINA	MURUA	LARRINDA	MANBURGA	GOPEGI	ERIBE	BURUAGA	BERRIKANO	APODACA	ETXABARRI IBINA	ETXABARRI IBINA (MG Gorbela CC)	VITORIA-GASTEIZ (Gorbela-Erreola)
ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>														
*	*	06:50	06:53	06:55	*	06:58	07:01	07:03	07:04	07:08	07:15	07:17	07:26	
*	*	08:20	08:23	08:25	*	08:28	08:31	08:33	08:34	08:38	08:45	08:47	08:56	
*	*	09:50	09:53	09:55	*	09:58	10:01	10:03	10:04	10:08	10:15	10:17	10:26	
*	*	14:45	14:48	14:50	*	14:53	14:56	14:58	14:59	15:03	15:10	15:12	15:21	
*	*	16:15	16:18	16:20	*	16:23	16:26	16:28	16:29	16:33	16:40	16:42	16:51	
*	*	20:50	20:53	20:55	*	20:58	21:01	21:03	21:04	21:08	21:15	21:17	21:26	
						22:10					22:19	22:21	22:30	
LARUNBAT, IGANDEA ETA JAIEGUNETAN / SABADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>														
*	*	9:55	9:58	10:00	*	10:03	10:06	10:08	10:09	10:13	10:20	10:22	10:31	
*	*	15:55	15:58	16:00	*	16:03	16:06	16:08	16:09	16:13	16:20	16:22	16:31	
*	*	22:00	22:03	22:05	*	22:08	22:11	22:13	22:14	22:18	22:25	22:27	22:36	

1 VITORIA- GASTEIZ - ZIGOITIA

VITORIA-GASTEIZ (Gorbela-Erreola)	ETXABARRI IBINA (MG Gorbela CC)	ETXABARRI IBINA	APODACA	BERRIKANO	BURUAGA	ERIBE	GOPEGI	MANBURGA	LARRINDA	MURUA	ETXABARRI IBINA	GOROSTIZA (Zigoitia)	ACOSTAOKUIZTA	ZESTAFE
ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>														
07:35	07:44	07:46	*	*	*	08:03	*	08:06	08:08	08:11	*	*	*	*
09:05	09:14	09:16	*	*	*	09:33	*	09:36	09:38	09:41	*	*	*	*
14:00	14:09	14:11	*	*	*	14:28	*	14:31	14:33	14:36	*	*	*	*
15:30	15:39	15:41	*	*	*	15:58	*	16:01	16:03	16:06	*	*	*	*
20:10	20:19	20:21	*	*	*	20:38	*	20:41	20:43	20:46	*	*	*	*
21:30	21:39	21:41	*	*	*	21:58	*				*	*	*	*
LARUNBAT, IGANDEA ETA JAIEGUNETAN / SABADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>														
09:10	09:19	09:21	*	*	*	09:38	*	09:41	09:43	09:46	*	*	*	*
15:10	15:19	15:21	*	*	*	15:38	*	15:41	15:43	15:46	*	*	*	*
21:15	21:24	21:26	*	*	*	21:43	*	21:46	21:48	21:51	*	*	*	*

* HURBILTZEZA / ACERCAMIENTO

Jatorriko ordutegiak izan ezik, gainerako gersikuetan dauden ordutegiak gutxi gora-beheraak dira. Las horas de paso por las paradas, salvo la de origen, son aproximadas.